El boletín *Euskera*, órgano de la Academia, empezó también a reanudar su publicación. En octubre de 1954 apareció un número suelto, en el que se publicaron los índices de los trabajos que se contienen en los tomos de la primera época (1920-1937). A partir de 1956 ha venido publicándose dicho boletín ininterrumpidamente. En esta segunda época de la revista *Euskera* han aparecido algunos trabajos notables por su extensión e importancia, tales como las «Voces Alavesas» de G. López de Guereñu, el «Lexicón Eibarrés» de T. Echevarría, la edición crítica de las poesías del bardo Etchahun, J. Hartschelhar, el tomo homenaje a Azkue, los escritos de Juan Bautista Gámiz, el trabajo del lingüista austriaco G. Mukarovsky sobre el vascuence y el Bereber, etc.

Mediante ayudas económicas pedidas «ad hoc» a las Cajas de Ahorro, etc., y con el fin de promover la reproducción literaria, la Academia establece anualmente Premios de Poesía, de Novela, de Teatro, Ensayo, «Bertso-berriak», etc.

También ha organizado Congresos de carácter público en torno a la lengua vasca y sus problemas. El primero se celebró en el verano de 1956 en Aránzazu; en los años siguientes hubo otros en Bilbao (1958), Eibar (1959), San Sebastián (1961), Aránzazu (1963), Loyola (1964) y Aránzazu (1968), etc.



A raíz del Congreso de Bilbao, y como resultado del mismo, la Academia emitió en 1959 un dictamen o declaración sobre palabras vascas. En él se declara que las palabras arraigadas en la lengua, vengan de donde vengan, deben ser consideradas como palabras vascas (en atención a este su arraigo), y que, por tanto, es legítimo y lícito su empleo. Esta declaración quería clarificar el ambiente enrarecido creado por la pretensión de que toda palabra de origen exótico debía ser desterrada y sustituida por un neologismo.

La Academia, además, ha patrocinado, o bien, favorecido con su ayuda la reedición de la obra clásica *Gero* de Pedro de Axular (1643), de la que se han hecho dos ediciones: una en 1954 y otra en 1964 —esta última bilingüe.

También ha tomado bajo su auspicio los Cursillos de Alfabetización Vasca, que se imparten a las personas adultas que, sabiendo hablar vascuence, por falta de una debida escolarización, no saben leer y escribir en esta lengua.

Ha creado asimismo el título de profesor de euskera, y organiza cursillos y exámenes para la colación de dicho título.

En diversas ocasiones ha dirigido peticiones al Ministerio de Educación y Ciencia, solicitando que el vascuence tenga acceso a la escuela.⁽¹⁾

En 1968 se conmemoraron solemnemente las Bodas de Oro de la fundación de la Academia. Además de los actos que se celebraron en las capitales: Diputación Foral de Navarra, Diputación Foral de Alava, Museo Vasco de Bayo,

(1) Véase *Euskera*, 1968, 267; 1971, 109.



Diputación de Vizcaya y Diputación de Guipúzcoa, hubo en Aránzazu un Congreso de estudio dedicado exclusivamente al problema de la constitución de la lengua literaria común, problema cuya solución las nuevas generaciones sienten como ineludible e inaplazable.

La Academia comprendió que no podía por más tiempo dejar de lado esta cuestión, y desde entonces viene dando sus orientaciones, ya en el campo de la ortografía, ya en el de la declinación, conjugación, léxico, etc., orientaciones tendentes a la consecución de este objetivo, que es la lengua literaria común.

Aparte de esto, la Academia ha publicado un Nomenclátor onomástico vasco para ayuda o asesoramiento de los padres que quieren imponer nombres vascos a sus hijos; asimismo ha aprobado y editado un léxico comercial y otro escolar. A petición del Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro tiene en estado avanzado de preparación un Diccionario de términos relativos a la construcción. También está preparando el Catálogo oficial de los nombres vascos de los pueblos y entidades de población. A petición de las ikastolas, etc., se ocupa de revisar desde el punto de vista lingüístico las traducciones de libros escolares de Enseñanza General Básica.


Con el fin de atender mejor a las múltiples y crecientes demandas que recibe, ha creado Delegaciones en San Sebastián, Vitoria y Pamplona, siempre en estrecha relación con las Diputaciones de las provincias respectivas.

Ha encomendado a una sociedad especializada la realización de un estudio socio-lingüístico sobre la situación del euskera.

Pero la obra cultural de más envergadura que trae entre manos desde hace años es la puesta al día del Diccionario de Azkue. Este trabajo la Academia lo tiene encomendado al miembro Dr. Luis Michelen, catedrático de la Universidad de Salamanca. La Academia espera obtener que a este señor se le conceda la excedencia por algún tiempo a fin de que pueda consagrarse con entera dedicación a la coronación de esta obra, que una vez editada, constituirá un instrumento de consulta imprescindible para todos cuantos por cualquier concepto se interesen por el euskera o lengua vasca.

Otro viejo proyecto, también pendiente, es la realización del Atlas lingüístico del euskera.

Fuerza es confesar que para hacer frente a los múltiples empeños y necesidades que la situación de la lengua vasca reclama, la Academia ha venido desenvolviéndose y trabajando en un medio de estrechez y penuria económica. Y aunque siempre ha sido subvencionada y reconocida por las Diputaciones que la crearon, no obstante, la ulterior evolución de la legislación española hacia necesaria una adecuación de su situación legal, lo cual se ha logrado felizmente con el Decreto de reconocimiento oficial, de fecha 26 de febrero de 1976.





5

Los cinco Presidentes de la Academia⁽¹⁾

1. **Don Resurrección María de Azkue y Aberasturi** fue el primer presidente de la Academia, que se ocupó de su dirección desde 1919 hasta 1951, fecha de su fallecimiento.

Azkue nació en Lequeitio (Vizcaya) el 5 de agosto de 1864. Es sin duda el hombre a quien más debe la lengua vasca.

Cursó estudios de Naútica en Lequeitio y bachillerato en Bilbao. Estudió Teología en Vitoria (1885) y Sagrada Escritura y Derecho Canónico en Salamanca (1888). Estudió Música en Bruselas y en el Conservatorio de Colonia (1909). Profesor de euskera en el Instituto de Bilbao desde 1888. Editó la revista *Euskalzale* desde 1897 hasta 1899.

Miembro de número de la Real Academia Española.

La mayoría de sus trabajos, aparte de los libros, vieron la luz en *Euzkera* y en la *Revista Internacional de los Estudios Vascos*.

Sus obras más importantes: *Diccionario vasco-español-francés*, 2 tomos, Bilbao, 1905-1906; *Cancionero Popular Vasco*, Barcelona, sin año; *Morfología Vasca*, Bilbao 1925; *Euskalerriaren Yakintza (Literatura popular del país vasco)*, obra bilingüe (en 4 tomos), Madrid, 1935, 1942, 1945 y 1947.

(1) Véase *Euzkera*, 1968, 296.

DE LA ANTIGUEDAD,
Y UNIVERSALIDAD DEL

BASCUENZE

EN ESPAÑA:
DE SUS PERFECCIONES
y ventajas sobre otras muchas
Lenguas,

DEMONSTRACION

AL ARTE,

QUE SE DARA A LUZ
della Lengua.

SU AUTHOR M. D. L.

Con la Licencia neffarla.

En Salamanca: Por Antonio Joseph
Villargordo.

- Índice de este cuadernos (Soyage
de la ciencia que era el fin).
— Prologo — 1
— Discurso primero. Sobre si hubo no lenguaje primitivo. — 1
— Segundo discurso. El lenguaje primitivo del hombre.
no fué el lenguaje de acción, sino de sensaciones. — 3
— Tercero. por que el lenguaje de los primi-
tivos hombres no fué ni nacido, ni adquirido, sino
natural. — 55
— El lenguaje primitivo no fué nacido. — 79
— El lenguaje primitivo no fué adquirido por
el hombre. — 82
— El lenguaje primitivo fué natural. — 92

Discursos filosóficos
Poco?

la primitiva lengua?

Prologo

en introducción las dudas q. se han
sustentado entre los literatos acerca de la lengua
primitiva. El intenc. que se ha contemplado particularmente
fué a presentar a la Sociedad de la Sociedad
en la invención de este idioma, considerando los
cambios q. en el tiempo mas pronto se entera en
los mas generales trazos; y las innumerables
que intell. han experimentado, en sucesivas
décadas & diferentes maneras. (Ensayos, etc.)
sin dudas, q. quieren ser los errores q. han


Solamente un par de obras de las cuatro citadas dejan bien justificada la laboriosidad de la obra de un hombre en su vida. Pero a esa su gigantesca obra hemos de añadir una larga lista de narraciones, novelas, óperas, zarzuelas, estudios, ensayos etcétera. Damos algunos títulos sin pretender ser exhaustivos: *Euskal Izkindea*, *Gipuzkera Osotua*, *Txirristadak*, *Bein da betiko*, *Ardi galdua*, *Sasi eskola*, *Vizcaytik Bizkaira*, *Ortzuri*, *Urlo*, *Eguzkia nora*, *Aitaren bildur*, *Katalintxo*, *Seaska utsa*, *Lamiak Euskalerrian*, etc.

Su personalidad ha quedado estudiada ampliamente en *Azkue zanaren gorazarrez* (*Euskera*, tomo 2.^o de la 2.^a época, 1957). Donde se recogen los siguientes trabajos: conferencias de N. Oleaga y A. Arrue sobre su vida y su obra; Maidagan, «Dedicatoria del homenaje»; Ibarguchi «Azkue euskerólogo»; Olaizola, «Azkue músico»; Mañaricúa «Azkue sacerdote». En el mencionado tomo se publica además bastante correspondencia inédita del mismo Azkue.

Puede consultarse también *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*, por Luis Michelena, Julio Caro Baroja y Antonio Tovar. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya; Bilbao 1966.

2. **Ignacio María Echaide Lizasoain** fue nombrado presidente al fallecimiento de Azkue, es decir, desde 1952 hasta su propio fallecimiento en 1962.


Echaide nació en San Sebastián el 1 de diciembre de 1884 y murió en la misma ciudad en noviembre de 1962. Ingeniero Industrial, director de la red telefónica de Guipúzcoa. Director del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».




Georges Lacombe,



Domingo Aguirre,



Hugo Schuchardt.



Arturo Campion,

Es autor de numerosísimas obras en castellano y vascuence sobre técnicas de telefonía y estudios lingüísticos principalmente. Sus obras euskéricas más importantes son: *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929); *Subfijación, prefijación y composición en el idioma Euskaro* (1911); *Tratado de sintaxis del idioma Euskaro* (1912); *El verbo vascongado* (1923); *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935); *Desarrollo de las conjugaciones éuskaras perifrásicas y sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).

Colaboró en *Euskal-Esnalea*, *Euskera*, *Boletín de la R. S. V. de Amigos del País*.

Su vida y su obra se recogen en la revista literaria euskérica *Egan*, año 1962, páginas 169-172; y en el boletín *Euskera*, tomo 7.^º de la 2.^a época, año 1962, páginas 350-353.

3. José María Lojendio Irure. Ocupó la presidencia en el período 1963-1964.

El Sr. Lojendio nació en San Sebastián el 10 de octubre de 1910.

Estudió el bachillerato en San Sebastián, licenciatura de Derecho en Valladolid y doctorado en Madrid y París.

Miembro del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Presidente del Tribunal Tutelar de Menores de Guipúzcoa.

Fundador y primer secretario de la entidad de escritores en euskera, creada en 1930 entre los congregantes de la Juventud Católica San Luis Gonzaga, con el nombre de «Luistar Euskal Idazle Bazkuna». Y por aquel tiempo colaboró con

artículos en vascuence en las publicaciones *Junior*, *Gure mutillak*, *Argia*, *El Pueblo Vasco*, etc. A veces bajo el seudónimo de *Bidasoro*, *Matia Polloe* y *Mazkelet*.

En la época posterior a la guerra ha colaborado en *Egan*, *Euskera* y *Aránzazu*.

Es también autor de los trabajos: «Iturbe ta Aranburu tar Agustin, Mexikoko lenengo Bakalduna» (Euskal Esnalea); «Mogel» (Seminario Julio de Urquijo); «Kristau Ikasbidea ta Eleiz itzaldiak» (Euskaltzaindia); «Euskararen Batasuna», «Loramendia» (Euskal Olerki Eguna).

4. Manuel Lecuona Echebeguren. Ocupó la presidencia de 1967 a 1970.

Nació en Oyarzun (Guipúzcoa) el 9 de marzo de 1894. Cursó sus estudios en el Seminario Diocesano de Vitoria. Profesor en el mismo Seminario desde 1917 hasta 1936. La Academia le cuenta entre sus primeros miembros correspondientes de 1919. Fue nombrado miembro de número en 1950.

Ha colaborado en vascuence y castellano en numerosas publicaciones del país sobre temas de etnografía, historia, arte y literatura.

Sus obras más importantes en castellano: *Métrica vasca* (1918); *La poesía popular vasca* (en el V Congreso de Estudios Vascos, 1930); *Literatura oral euskérica* (1935); *Del Oyarzun antiguo* (1959); *Literatura oral vasca* (1964).


En vascuence: *Gabon kantak* (1933); *Iesu aurraren bizitza* (1948); *Gorozikatik Gurutziagara* (1952); *Zigor* (1963); *Bi antzerki ta itzaldi bat* (1965).

Ha dirigido la traducción al euskera de la Liturgia.

Se encargó de la edición y prólogo de la cuarta edición del *Gero* de Axular, publicado en 1954 a expensas de la Academia.

5. **Luis Villasante Cortabitarte.** Ocupa la presidencia desde 1970. Nacido en Guernica (Vizcaya) en 1920. Religioso franciscano. Estudios en los centros de la Provincia franciscana de Cantabria. Doctorado en Teología en la Universidad Pontificia de Comillas. Profesor en el Teologado de Aránzazu (Oñate, Guipúzcoa).

Además de numerosos artículos en diversas revistas y publicaciones, ha publicado *Historia de la literatura vasca* (1961); edición bilingüe del *Gero* de Axular (1964); *Jainkoa* (1962); *Jesukristo* (1969); *Hacia la lengua literaria común* (1970); *La declinación del vasco literario común* (1972); *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974); *Axular: Menda, Gizona Liburua* (1972); *Axular-en Hiztegia* (1973).









1

Euskaltzaindi bat sortzeko asmoaren kondaira ttipia

Idea batek noiz edo nun izan zuen bere sortzea jakitea, gehienetan ez da erraza izaten. Idea bat edo asmo bat, alegia, jendartean luzaz ibili ondoren eta gora-behera asko ikusi ondoren, azkenean obrara eramatzen denean, idea hura lehenbiziko aldiz noiz jaio zen argitzea, ez da gauza erraza izaten, Horrelako zerbaite gertatu da Euskaltzaindiaz ere, hots, euskera iker eta zaintzera loturik egongo den akademia bat sortzeko asmoaz. Idea hau mende hunen hastean burutu zen, baina asmo bezala lehenagotik dator.

Aurrelari gisa aipa daiteke agian *Jose Paulo Ulibarriko eta Galindezen* izena (1775-1847). Arabarra zen, Okendoko semea, nahiz eta Abandon, Bilbo ondoan, bizi. Ofizioz perratzailea. Arabako Diputazioaren Kultura Sailak atera berri du faksimilezko edizioan haren *Gutunliburua*, zeinetan kopiatzen zituen Ulibarrik eskutitz, bertso eta gainerako ohar eta berriak. Mirestekoa da zeinen kontzientzia goiztarzolia duen herriko seme xalo hunek euskeraren balioari buruz, nolako kezka agertzen duen euskera gorde dadin, eskolan erabil dadin, eta abar. Behin eta berriz eta aspertzeke ari da ia eskutitz eta bertso denetan idea berberak errepikatzen.

Orain bada, Ulibarrik baditu bertso batzuk 1832ko Ekainaren 29an, Pedro Novia de Salcedo jaunaren urte eguna

EUSKERA

Euskaltzaindia 'ren lan eta agiria
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA

(Separata)

XXX
1975
SAN SEBASTIAN

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAUVAS ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE
1919-1920

Iko urteas — In zeharkia



DOMOSTIA'R
Mauru, Mena ia buren Legorria'ren sizen
Pasealekuetako 16
1880

EUSKERA

Euskaltzaindia 'ren lan eta agiria
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: A. Luis Villasante

XX
1.975
BILBAO

ospatzeko eginak. Bere betiko kezkak azaltzen ditu: Euskera behar dela salbatu, zaindi, piztu, eskolan sartu eta abar. Azken bertsoan ordea hara:

*Ogueta lau guizon
bear dira icentau
Guernicaco bazarrean
euzkeraren ganean
eguiteco alegiñau⁽¹⁾*

Hau da: Gernikako batzarrean 24 gizon izendatu behar direla euskeraren aldeko ahalegin mork arrerra eramateko.

Baina hitz argiz eta espresuki Akademia baten premiaz lehenbizikoz mintzatu dena, behar bada, *Jose Francisco Aizkibel* izan da. Jaun hau, Azkoitian jaio zen 1798. urtean eta Tolledon hil 1864ean. Guti ezagutzen den liburuska batean pasarte hau irakur daiteke: Aizkibel-en begi ergia salatzen digun pasartea. Ongi konturatzen da Aizkibel jauna Hunelako Instituzio baten faltaz zer-nolako hutsunean nabari den euskera eta euskal literaturari buruzko arazoetan. Hunela dio, bada:

«Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestro Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reúna los elementos

(1) Ikus J. P. Ulibarriren *Gutunliburu*, faksimilizko argitalpena, Gasteiz 1975, 185 orrialdean. (orrialdeen lumerotatzē hau geuk egina da, zeren Gutunliburuan datorren 152. orrialderaino bakarrik heltzen baita).

DICCIONARIO
TRILINGUE
DEL
CASTELLANO,
BASCUENCE,
Y LATÍN.
TÓMO PRIMERO.

SU AUTOR

MANUEL DE LARRAMENDI,

de la Compañía de Jesús.

DEDICADO

Primitivo
Ameri

A LA MUI NOBLE,

Y MUI LEAL PROVINCIA

DE GUIPUZCOA.

1745

CON PRIVILEGIO EN SAN SEBASTIAN;

Por Bartholomé Riego y Mencero, Imprefor de dichi M N F M L Provincia,

Ciudad de San Sebastián, fu Confidado, y de la Real Compañia

Gipuzcoana de Caracas.

primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso de ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo sólo a la verdadera y genuina restauración de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo o de su mayor pureza. Para esto es indispensable la formación de una *academia* compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, o que hayan estudiado las lenguas orientales, o dedicádose a estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno a todo filólogo o lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua. Las autoridades del país deben proteger y contribuir para la prosperidad y buen éxito de los trabajos de esta corporación, que serían sumamente útiles para el país y para la ciencia filológica, llevando a cabo el gran pensamiento de nuestro adorado patrício, el Sr. Conde de Peñaflorida, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios. De este modo estaría unida esta nación con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunirlas políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas. Progresaría muchísimo la literatura vascongada, porque habría más consumo de libros euskeranos, puesto que les será comprensible a todos el dialecto literario, y entonces se publicarían muchas gramáticas, diccionarios y obras útiles, que, por temor de falta de venta, se hallan en el día en el estado de manuscritos, unos concluidos y otros abandonados, sin ningún género de estímulo para concluirlos.»

Eta oraino: «El P. Zabala, en su *Verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, siguiendo en parte las erradas huellas del Sr. Astarloa, pone ocho modos, que son: infinitivo, indicativo, optativo, condicional, consuetudinario, imperativo, subjuntivo y potencial. Quisiéramos que hubiese una *Academia* donde poder discutir este punto y otros muchos en que no estamos conformes los aficionados a esta lengua.

Es lástima que se pierdan tantos trabajos individuales y tantos esfuerzos por no formar una sociedad literaria o filológica de esta lengua, donde discutir y consultar sobre las dudas que ocurran y combatir los errores que, inocentemente, por ignorancia se propagan. Deseamos que llegue el día para asegurar el buen éxito de los esfuerzos del país Vascongado.»⁽²⁾

Joan den mendeko erdi aldean *Luis Luziano Bonaparte* printzea (1813-1891) dator gure herrira. Euskerarekin guti bezala maitemindua. Hizkuntza huni eskainiko dizkio bere hautuak, bere lanik handienak. Euskeraz guztiz ongi ikasi eta mintzatzen zekien.

Euskeraz egiten zen alde guztiako lankideak zituen, hoietaz inguraturik zebilen, hoiei lanak agintzen zizkien eta bai esku zabalez ordaintzen ere. Lankide hoiek ematen zizkioten xehetasunez baliaturik, eta tokian tokiko frogantzak zehazki hartuz, euskalkien mapa antolatu zuen, euskerak dituen dialekto eta subdialektoen sailkatzea zientifikoki egiteraino.

(2) *De la lengua euskera, o de los vascongados*, Madrid 1856; 218 eta 221 orrialdeetan (Pasarte hauk geure lagunkide Justo Garate-ren ardurari zor dizkiogu). Aizkibele-en liburuska CASTELLANOS DE LOSADAren lanaren atala da; hau AZARA-rena den bezala: *Album nacional y extranjero*, Madrid, 1856.

Euskal mapa hau egiteko, Printzeak bost ibilketa egin zituen Euskal Herri guztian barna, 1856tik 1869ra bitartean, bere lankideak edo «Akademia ibilkari» horrek —hala deitua izan da³— laguntzen ziolarik. Orduan, eta Printze argiaren pertsona ardatz bezala harturik, lehenbiziko aldiz euskera mueta guztietako idazleak elkarganatu eta bata bestearekin harremanetan jarri ziren.⁽³⁾

Printzeak aurkitu zituen lankide eta langileetan finenetako bat *Jean Duvoisin* jauna izan zen (1810-1891); apaizgai ohia eta aduanetako kapitaina. Printzearen aginduz hunek egingo du Biblia osoaren lehen itzulpena.⁽⁴⁾

Duvoisin kapitainak, bada, Antoine d'Abbadie jaunarekin izandako eskutitzetan, badira ipuiak euskal Akademia bati buruz. Abbadie jauna ere txit ezaguna dugu euskal literatura-ren alorrean. Irlandarra sortzez, baina euskalduna etorkiz, Donibane Lohitzungo inguruetan zuen bere jauregia, eta urtero oroz Ipar Euskal Herriko herrixketan euskal olerki norgehiagokak antolatzen zituen.


1862ko Abuztuaren 20an J. Duvoisin-ek A. d'Abbadie jaunari egindako eskutitz batean hara zer irakurtzen dugun:

«Je ne cesse de regretter que vos idées sur le projet de former una academie basque n'aient pu être réalisées jusqu'à ce jour. C'est là cependant l'unique moyen d'avoir

(3) Ikus RODRÍGUEZFERRER, MIGUEL: *Los Vascongados: su país, su lengua, y el príncipe Luis Luciano Bonaparte*; Madrid, 1873.

(4) Testamentu Berriaren euskal itzulpena 1571. ean agertu zen eta J. Leizarragak egina da, Albreteko Joana erreginaren aginduz.

Pierre Lafitte,



Luis Michelena,



Carmelo Echegaray.

un Dictionnaire complet, avec des définitions exactes; c'est la meilleure voie pour arriver à conserver par l'impression les pièces historiques dont la partie augmente sans remède.

Que faudrait-il donc pour former cette académie si désirable? Un comité à Bayonne; et le succès ne se ferait pas attendre. Telle est ma conviction.

Or, une fois que l'académie serait constituée et que nous aurions une revue mensuelle, il serait possible d'obtenir du département et de l'Etat un certain nombre de souscriptions et probablement aussi quelque subvention. Pourquoi donc ne pas essayer?

Si vous voulez, Monsieur, donner suite à vos premières idées, je pourrai l'hiver prochain vous apporter mon concours, que j'espère rendre efficace, en demandant des adhésions particulières à tous les habitants basques ou d'origine basque que se trouvent à Bayonne.

Je vais quitter Bardos; j'ai déjà arrêté un appartement près de la Cathédrale. Une fois là, je n'aurai plus à craindre que la tieudeur, à laquelle je ferai la guerre de mon mieux avec le concours de tous mes amis. A peine un noyau sera-t-il formé, que le char roulerait; la propagande à bout portant et les invitations personnelles directes seraient, je crois, un moyen infaillible de succès. Me fais-je illusion? Je livre ma pensée à votres jugement. En semblables entreprises, il suffit souvent de donner ce branle. Je m'y emploierai d'autant plus volontiers, que





BIBLE SAINDUA,

edo Testament Zahar eta Berria,

Duvoisin kapitainak latinezko Bulgata-
tik lehembiziko aldiko Laphurdiko
eskarara itzulia. Luis-Luziano
Bonaparte printzeak

argitara emana.

Euskaldunen.

j Nere arai lagun, maité' rastarteranok,
Teresoren fedér loti zatravskidansk!
Obidiya k^(*) Tristeën libriban ziondá
Orain zuri digotsoi, Euskalerroná.

(*) Quosque ego fraterno dilexi: more sodales;
O mihi Thessa pectora juncta fide!
Cor. I. 3, vers. 65. 66. O

"Jaunaren bitzak, bitz garbiak dira, zilbar suaz ikhartua, lurrezko
untzian frogatua, zazpi aldiz garbitua."—Psal. xi. 7.



LONDRESEN.

cette diversion à mon travail habituel me sera utile à moi-même.»⁽⁵⁾

Eskutitz honetarik frogatzen denez, Euskal Akademia sortzeko asmoa *Antoine d'Abbadie* jaunarena berarena zen, eta Duvoisin asmo horren alde gartsuki jarri zen. Halaz guztiz eta guk dakigula, ordukotz ez zen deus egin.

Baita *Jose Manterola* jauna (1849-1884) ere, bere *Cancionero Vasco* delakoan Akademia baten hutsune horretaz arrenkurratzen da. Hunela dio:

«La falta de una Academia que regulara la parte material de la escritura, la carencia de cátedras, la escasez de obras literarias escritas en este idioma, y la misma variedad de sus dialectos y sub-dialectos, ha sido causa de la lamentable confusión que ha existido y existe todavía respecto a la ortografía euskara.»⁽⁶⁾

1886.urtean Bizkaiko Durangon egin ziren Euskal Jaietan *Aristides Artiñano* jaunak lau haizetara zabaltzen du Euskal Akademiaren asmo bat, xeheki eratua. Akademia horrek, bai

(5) Pasarte hay Aita Jean Diharce Belokeko Abade eta euskaltzainari zor diogu. Euskal itzulpena ere hark berak egina da: «Zenbatetan nahiko nuken zortu balitz, zure xehedeen arabera, euskal-akademia bat. Hori izanen ez duguno, ez da eginen euskal-hiztegi osorik, behar diren xehetasun eta argi guziekin. Hori izanen dugu, lehengo izkirioen begiratzeko eta argitaratzeko biderik hoherena; hainbertzen baita izkirio hoiatarik behingotz galtzen... Hain beharrezkoa dugun akademia horren moldatzeko, zer egin behar litake? Batasun bat, Baionan; eta gero, aise moldatu izanen da. Ez dut hortaz dudarik. Akademia hori sortuz geroz eta hilabetekari bat ukanez geroz, bai Departamendutik, bai Gobernutik ardiets ginetzazke diru-laguntzak. Zergaitik ez hortarat berma? Nahi baduzu, jauna, zure xedetan aintzinak joan, laguntzen ahalko zaitut helduden neguan; beren izen eta laguntzak eskatuko diozkatet Baionan dauden eskualduneri edo eskual-semeri. Bardotzetik joatekoña naiz; bizitegi bat badut jadanik Baionako eliza nausitik hurbil. Harat orduko, ez dut etsi bat baizik traban izanen: epeltasuna; gerla eginen diot nere ahal guziez, adiskide batu lagun. Multxo bat bilduz geroz, gunork atxik? Deneri aipatuz eta denak bururz-buru gonbidatuz, helduko gare, ez da dudarik. Amets egiten ote dut? Zeronek ikus. Holakotan, maiz lehen urrats aski. Gogotik ariko naiz; on dut-eta nere egun guzitako lanetik doi bat airatzea.

(6) *Cancionero Basco*, Serie III, XIII orrialdeak; San Sebastián, 1880.



Boceto para la estatuaria de Aránzazu.
Jorge de Oteiza.

*Jurgi Oteizak Arantzazurako eginikako
bozetoa.*

Euskal Herriari buruzko Kondaira-lanak, eta bai euskeraren lantze eta zabaltxearen izango lituzke helburutzat. Akademia horrek eduki deharko lukeen arautegia ere eman zigu Aristides Artiñano jaunak.⁽⁷⁾



Ordutik Euskal Akademia bat sortzeko ideia hau gizarte giroan beti presente egongo da eta indarra hartuaz joango da, gainera, baina urteak igaroko dira ideia hori praktikara eramateko bidea topa dadin arte.

Beste aldetik, eta Euskal Herritik urrun, 1886. urte berean, *K. Hannemann* eta *T. Linschmann* hizkuntzalari alemanek «Baskische Gesellschaft» delakoa sortzen dute Berli-en. Elkarte hunek bazuen bere aldizkaria, Euskara zeritzana, eta hamar urtez iraun zuena.

Bitartean euskera lantzeko ahaleginak, Pirinioez handiko eta hemendiko aldean, elkarren berri jakin gabe dabilta, eta bakoitza bere aldetik; baina laster kezka baten hasiera nabaitzen, hots, elkarganatzetik egitea posible ote den ikusteko, guztien artean bilerak egin behar direla.

1900. urtean bi Euskal Herrietako euskaltzaleak Elkarte batean biltzearen aldeko asmoa oldarki nabarmentzen da. 1901ean Hendaian eta hurreneko Hondarrabian Biltzarra egiten dira. Ezkeneko hunek ortografiaren batasuna egin nahi izan zuen, baina ez zuen ondore onik izan. Aitzik, iritziak ezin bateratuaz, bakoitzak bere aldetik jo zuen. Beraz eta horren ondorioz, eskualdun frantsesek «Eskualtzaleen Biltzarra» eta hemengoek «Euskal Esnalea» sortzen dute.

(7) Aristides Artiñano jauna (1874-1911) bilbotarra zen. Hark marraztutako Euskal Akademian egitamua *Euskal Erria* aldizkarian ikus daiteke: XV (1886), 428, 449 eta 481. SORARRAIN-ek Catálogo de Obras Euskaras-en dioenez, liburuska bezala ere azaldu zen: Barcelona, 1886.



Baina helburu bezala batasuna erdietsi behar delako xedea ez da haatik bertan behera uzten. Batasunaren nahia hitz argiz eta garbiz agertzen du *J. P. Arbelbide* (1841-1905) euskaldun frantses idazle eta apaizak Urruñako Euskal Jaietako hitzaldian (1901eko abuztuan).⁽⁸⁾

Urteak badoazi, ordea, eta garbi ikusten da lagun bakar eta xoilen —idazle eta horrelakoen— entsei eta ahaleginak ez direla gai, ez dutela hartarako indarrik aski. Beraz, guztiok amets duten Akademia hori inoiz sortuko baldin bada, agintarien atzekalde eta babesa eduki behar dutela.

1906 eta 1907. urteetan *Adolfo Gabriel Urquijo*, Bizkaiko Diputazioaren Lehendakari jaunak, Euskal Akademia batentzat Arautegia idatziko du. Berriz ere, ordea, asmoa asmo gelditzen da.⁽⁹⁾

Akademia bat sortzeko asmoa bizirik dela, eta sortze hori hurran-hurranekotzat jotzen dela jakiteko, garaiko paperak ikustea besterik ez dago. Adidizez, Azkuek egin eta hartutako eskutitzen artean bada bat, 1907an *Federico Baraibar* jaunak Gasteizen idatzia. Eta Euskal Akademia horretan Arabak izango dituen ordezkariez mintzo da.⁽¹⁰⁾

1911. urtean, eta Baionan, «Cercle d'Etudes Euskariennes» delakoa sortzen da. Beronen helburu nagusiak hauk ziren: euskera ikertu, begiratu, hazi eta zabaltzea. Elkarte hunek

(8) Hitzaldi hau *Eskualdun Ona* Ipar Euskal Herriko astekarian agertu zen, 1902ko urtarril-otsailean.

(9) Ikus *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkaia, I urtea, lehen zenbakia (1920), 38 orrialdea.


(10) Ikus *Euskera*, 1957, 252. Azkueren eskutitz hoieta makina bat aldiz aipatzen da Euskal Akademiaren asmoa. Esaten da, adibidez, D'Abbadie jaunak legata utzi duela xede horretarako, Akademiak izango lituzkeen helburu eta antolaketaz etab. berriak ematen dira. Ikus *Euskera* 1957; 315, 361, 362, 367, 372, 377, 378, eta beste orrialde asko.

JESVSEN
AMORE-NEQUEEI
DAGOZTEN,
CEMBAIT
OTOITZGAL

JESUSEÑ COMPAÑIACO

A. SEBASTIAN MENDIBURU^c
EGUIÑAC.

III.
Joseph



Z
Kabar

1760.


B E H A R B E Z A L A.
Iruñeco Libru-guille JUAN ANTONIO CASTILLA-ren
ECHEAN.

Julio de Urquijo jaunak 1907. urtean sortutako aldizkaria —*Revue International des Etudes Basques* alegia— hartu zuen bere agerkaritzat. Elkartearen Arautegi eta batzar-agiriak aldizkari ospetsu horretan daude.⁽¹¹⁾

Azkenik, *Euskal Esnalea* Aldizkariak, 1913ko azaroan, inuesta bat antolatzen du: «Euskeraren Akademia: Jarri behar ote da? Posible ote da? Zer-nolako probetxuak ekarriko lizkiobe euskerari?» Aldizkariaren ondoko zenbakietan datorrak irakurleen erantzunak. Eta aldizkarian baino lehenago erantzunok izparrigietan agertu ziren, adibidez *La Gaceta del Norte*-n (abenduaren 5ean). Bost erantzun jasorik daude *Euskal Esnalea*-n, eta bostok Akademia sortzean aldekoak.⁽¹²⁾

(11) *RIEV*, VI, 238; VIII; 161.

(12) *Euskal Esnalea*, 1913ko azaroaren 30eko zenbakia, 352. orrialdea. 1914eko urtarrilaren 15eko zenbakia, 21. orriald. 1914eko otsailaren 15eko zenbakia, 27. orriald. 1914eko otsailaren 28ko zenbakia, 54. orriald. 1914eko martxoaren 30eko zenbakia, 68. orriald. 1914eko apirilaren 15eko zenbakia, 82. orriald.



Januarii 154

APOLOGÍA
DE LA LENGUA BASCONGADA,
Ó ENSAYO CRÍTICO FILOSÓFICO
DE SU PERFECCIÓN Y ANTIGÜEDAD

Sobre todas las que se conocen:
EN RESPUESTA Á LOS REPAROS PROPOSTOS EN EL
DICTIONARIO GEOGRÁFICO HISTÓRICO DE ESPAÑA,
TOMO SEGUNDO, PALABRA NAVARRA.

POR D. PABLO PEDRO DE ASTARLOA,
PRESBÍTERO.

MADRID.
POR DON GERÓNIMO ORTEGA.
1803.



V. 4-3-83

ALFABETO
DE LA LENGUA PRIMITIVA
DE ESPAÑA,
Y EXPLICACIÓN DE SUS MÁS ANTIGUOS MONUMENTOS
DE INSCRIPCIONES Y MEDALLAS.

POR
DON JUAN BAUTISTA DE ERRO Y AZPIROZ,
CONTADOR PRINCIPAL POR S. M. DE RENTAS REALES,
PROPIOS Y ARRIBITOS DE LA CIUDAD
- Y PROVINCIA DE SORIA.



MADRID
EN LA IMPRENTA DE REPULLES.
1806.

CRISTAU
DOTHINAREN
ESPILACIONA
AUR-ENZATTA ANDIENZAT
GALDETUAZ TA ERANZUNAZ

Maizuaren ta leozlearen artean:
LENDANIC LANDUÁGOA TA ASCOZ
gueisgorutz, batereraz, Confesatzeo, Co-
mulgatzeko, ta Meráz enzuteko eracu-
menduaquita.

ALTERATZENDON FRANCISCUS
Xavier Láriz, Apóstol.



MADRILLEN:
Don ANTONIO SANCHAREN echeán 1773.
urtean.
Bear diran Licenciaquin.

EXPLICACIÓN
DE LA
DOCTRINA
CRISTIANA

PARA NIÑOS, Y ADULTOS
POR PREGUNTAS Y RESPUESTAS
entre Maestro, y discípulo.
CON VARIOS DOCUMENTOS,
y advertencias prácticas, especialmente
para confesar, comulgár, y
oir Miss.

POR DON FRANCISCO XAVIER
de Láriz, Presbítero.



EN MADRID:
En la Imprenta de D. ANTONIO DE SANCHAS
Año de 1773.
Con las Licencias necesarias.

2

Euskaltzaindiaren sortzea. Beronen egitura eta geroagoko aldakuntzak


Eta hona nun azkenean orduak jotzen duen. Bizkaiko Diputazioan 1918. urteko urtarrilaren 25eko batzarrean, eta euskeraz idatzitako gutun batean, Elgezabal-dar Kosma eta Landaburu-tar Peli ahaldun jaunek eske bat egiten dute: Diputazio hunek, alegia, beste euskal Diputazioekin batean, Akademia hori sor dezan eta bere laguntzaz lagun dezaion.⁽¹⁾ Eskabide huni baiezkoa ematen zaio eta beste hiru Diputazioek ere era berean ontzat ematen dute.

Ordurako iragarririk zegoen Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarra, 1918. urteko udan Oinatiko Unibertsitate zaharrean egiteko zena. Diputazioek, bada, hunen esku utzi zuten asmo hau aztertu, borobildu eta praktikara eramateko kontua.

Esan eta izan. Irailean, Oinatiko Biltzarrean, Hizkuntza Sailean, saileko buru den Txomin Agirre jaunak —*Garoa* eta *Kresala* elaberri ezagun eta preziatuen egilea, noski— batzarkideei erregu hau egiten die: Boto bidez ager dezatela beren iritzia arazo huni buruz (euskera aztertzea eta zaintzea helburutzat izango duen Elkartea sortzeari buruz, alegia).

Guzti-guztiek baiezko erantzuna eman zuten. Ondoren Elkartearen eremua artezki mugatu behar zen. Zein izango

(1) Ikus *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, martes 14 de enero de 1919.




ONSA HILCECO BIDIA,

I V AND E TARTAS ARVECO
ERRETORAC EVSCARAZ EGVINA.

MONEINECO IAVN MARQVIZARI
DEDIKATIA.

Notam fac mihi viam in qua ambulem.
Psal. 142.



ORTHECEN IACVES ROVYER, Erregu-
eren Imprimaçalia baitan, Biarnon, 1666.

zen presiski Elkarte horren zeregina: ala, euskera ikertza, ala euskera begiratu eta zaintza? Zenbaitek uste zuen bi Elkarte sortu behar zirela, bakoitzari bi zeregin hoiatarik bana egotziaz. Bainaz azkenean erabaki zen elkarte berberak bi zereginok hartu behar zituela, Elkartearen barnean sail egunik.

Gero batzorde bat izendatu zen Akademiaren Arautegiaren aitzin asmoa prestatzeko. Hamabost eguneko epea eman zen —izparringietan abisua emanik— nahi zuenak bere ideia eta proposamena bidal zitzan, eta ondoren Olabide-tar Erraimun Aitak Arautegiaren aitzin asmoa egin zuen. Aitzin asmo hau prentzaren bidez ezagutzera eman eta epe berri bat jarri zen zuzenketa eta oharrok egiteko. Epe hori pasatu eta hartutako oharrok ikusirik, 1918ko azaroan, Arautegiaren asmoa onarturik eta finkaturik gelditu zen.⁽²⁾

Hunenbestez Oinatiko Biltzarra izendatutako batzordeak bukatutzat eman zuen bere lana. Orduan Biltzar hartan sorturiko Eusko Ikaskuntza elkarteak Arautegiaren asmoa Diputazioei bialtzen die. Lauek ados zeudela eta ontzat ematen zutela erantzun zuten: Bizkaikoak 1919ko Maiatzaren 5ean; Araba eta Nafarroakoak batak Irailaren 2an eta besteak 3an; Gipuzkoakoak Apirilaren 11n. Ondoren Diputazioek Eusko Ikaskuntzari eskatzen diote Arautegiak agintzen dituen euskaltzainak izendatzeko bidea bila dezala Akademia hori bere kabuz ibiltzen has dadin.

Irailaren 21ean, eta aitzinetik Eusko Ikaskuntzak dei eginik Gipuzkoako Diputazioaren jauregian bildu ziren lau euskaltzain fundatzaile lehenak, jadanik Oinatin izendatuak, hots:

(2) Ikus *Euskera*, I urtea, 1 zenbakia (1920), 42 eta ondoko orrialdeak.



Resurrección M.^a Azkue, Arturo Campion, Eleizalde-tar Koldobika eta Julio Urquijo jauna. Eta hoietaz gainera garai hartako zuzendariak: Jaungoiko Zale, Eusko Deya, Jesusen biotzaren Deia, Irugarrengoa Frantziskotarra, Euskal Erria, Euskal Erriaren Alde, Euskal Esnalea, Revista Internacional de los Estudios Vascos eta Euskalduna-ren zuzendari jaunak, alegia.

Arautegiaren arauz hamabi euskaltzain oso behar ziren, eta lau izendaturik zeuden jadanik. Beraz, orain gainerakoak izendatu behar ziren. Huna hemen batzarre gogoangarri haren agiriak:

«A las tres de la tarde del día 21 de septiembre de 1919, se reunieron en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, previa citación hecha por la «Sociedad de Estudios Vascos», las personas a quienes, según el «Capítulo adicional» del proyecto elaborado por la ponencia que se designó en el Congreso de Oñate para organizar la Academia de la Lengua Vasca, correspondía la elección de los Académicos numerarios que habían de componerla. Asistían en tal concepto los señores don Resurrección María de Azkue, don Arturo Campión, don Luis de Eleizalde y don Julio de Urquijo, nombrados ya Académicos en el documento mencionado; y entre los compromisarios que, conjuntamente con aquéllos, habían de hacer la elección de los restantes, los señores don Carmelo Echegaray en representación de la «Revista Internacional de los Estudios Vascos», doctor Pierre Broussain del «Eskualduna» de Bayona, don Domingo Aguirre de «Euskal Esnalea», R. P. Fray Dámaso de Inza

Miembros de Euskaltzaindia en Aránzazu:
De izquierda a derecha, de pie: Luis Michelena,
Xabier Diharce, Jean Haritschelhar, Alfonso
Irigoyen, Luis Villasante, José M.^a Satrustegui,
Francisco Altuna e Imanol Berriatúa; agachados:
Juan San Martín, José Luis Lizundia, Joseba
Inchausti y Xabier Quintana.
En julio de 1972.

Arantzazun, 1972 ko uztailean aditz batuari
buruzko bilkuretako batzarkide batzuk.
Zutik: Mitxelena, Haritschehar, Irigoyen,
Villasante, Satrustegi, Altuna eta Berriatua.
Makurturik: San Martin, Lizundia, Intxausti eta
Kintana.

de «Irugarreng Prantziskotarra», don Cirilo de Arzubia-ga de «Jaungoiko Zale» y de «Jesusen Biotzaren Deya», cuyos dos votos estaba autorizado a emitir, don Toribio Alzaga de «Euskal-Erria» y don Gregorio Mújica de «Euskalriaren Alde». A petición de los reunidos actuaron de Presidente don Julián Elorza y de Secretario don Angel de Apraiz, que desempeñan los mismos cargos en la Sociedad de Estudios Vascos, suscribiendo por tal motivo la presente acta.

Después de un saludo del Presidente señor Elorza en idioma vasco, lo mismo que las deliberaciones y votación que siguieron después, dio lectura el Secretario al referido proyecto de Estatutos con las adiciones aceptadas por la Ponencia antedicha. Fueron también leídos los acuerdos de la Sociedad de Estudios Vascos en la reunión de su Junta Permanente de 3 de Marzo último, relativos a la misma Academia y la comunicación que en su consecuencia dirigió a las Diputaciones Vascas, recabando la aprobación de tal proyecto y las respuestas favorables que se habían logrado de las cuatro Diputaciones.

Hubo amplia deliberación para proceder a la votación de las personas que habían de ser designadas para ocupar las ocho vacantes de Académicos numerarios; y por unanimidad resultaron elegidos los señores don Domingo de Aguirre, Mr. Pierre Broussain, Mr. l'abbé Adéma, don Ramón Inzagariay, don José de Agerre, don Juan Bautista de Eguzquiza y R. P. Raimundo de Olabide, suscitándose luego discusión acerca de si el único punto que quedaba vacante lo había de ocupar un suletino o un vizcaíno. Y al ver la primera opinión de la mayoría de los reunidos, pues

únicamente apoyó la segunda con su voto el señor Eleizalde, quien adujo en favor de la misma la razón del escaso cultivo literario que hoy alcanza el dialecto hablado en la región de Zuberoa, se trató de designar la persona de ésta que había de elegirse, acordándose por unanimidad también que lo fuera el R. P. Pierre Lhande.


Se cambiaron impresiones acerca de los lugares de residencia de la Academia y para la celebración de sus sesiones; lo cual del mismo modo que la periodicidad de éstas y otros particulares, decidieron los reunidos queden para la resolución de la Academia una vez constituida con sus doce miembros numerarios, a quienes se acordó que don Arturo Campión y los firmantes de esta acta notificasen su nombramiento, convocándole para la próxima reunión que se celebrará el día 5 de octubre, a las diez de la mañana, en el mismo local de la Diputación de Guipúzcoa.

San Sebastián, 5 de octubre de 1919.

El Presidente de la Sociedad de Estudios Vascos y de la reunión, Julián Elorza.

El Secretario de las mismas, Angel de Apraiz.»

Adema eta Agerre jaunek ez zuten izendapena onartu. Txomin Agirre eta Broussain, berriz aurki hil ziren. Orduan, Euskaltzaindiak lau hoien hutsartea betetzeko hunako jaun hauk hautatu zituen: Altube-tar Seber, Intza-r Damaso, Georges Lacombe eta Martin Landerretche. Horrela osatu zen euskaltzain lehen taldea. Hiru euskaldun francesak, eta gainerakoak hemengo lau probintziakoak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak, alegia.



Akademiak ohorezko euskaltzain bezala hunako jaun hauk hartu zituen: Hugo Schuchardt (austriar hizkuntzalaria), Julien Vinson (frantsesa) eta C.C. Uhlenbeck (holandresa). Hirurok euskera edo euskal literaturari lan merezigarren egilea. Gainera, Euskal Herriko eskualde guztiatarik eta bai kanpoko batzuk ere euskaltzain laguntzaile edo urgazle izendatuak izan ziren. Kanpoko hoien artean zeuden Ramón Menéndez Pidal, E. Dodgson (ingelesa), T. Linschann (alemana), Urtel, Winhler, eta abar.⁽³⁾


Hasi berri hartan egindako batzarre batean, eta Eleizalderen eskeari men eginez, Euskaltzaindiak Bilboko iria hartzen du bere etxalekutzat.⁽⁴⁾ Behin-behineko egoitza bezala Hibaiondo kaleko etxe baten zatia (Ribera 6, lehen 5) alokazioz hartua, aukeratzen da. Horrek ez du esan nahi batzarreak beti han egin behar zirenik; beste tokietan ere maiz egiten ziren; euskaltzainak berriz, beren betiko bizilekuetan bizi ziren. Eta euskaltzain berrien sarrera ospetsuak gehienetan euskaltzaiaren beraren jaioterrian egiten ziren —eta egiten dira orain ere.

Beste batzarre batean Euskaltzaindiak bere lehendakaria hautatu behar zuen, eta autapen hori Resurrección M.^a Azkue-ren pertsonan erori zen.⁽⁵⁾ Kargu autatzea bi urtez behin bada ere, Azkue jauna beti berriro hautatua izan zen, eta horrela kargudun egongo da gerlaraino, eta bai hil arte ere (1951. urtean hil zen). Gainera, nola Bilbon bizi zen, Euskaltzaindiaren etxearen lan egiten zuen beti. 1927an, bai

(3) Ikus *Euskera*, I, 1 zenb., 16. orriald.

(4) Ikus *Euskera*, I, 1 zenb., 52. orriald.

(5) Ikus *Euskera*, I, 1 zenb., 51. orriald.



**GUIPUZCOACO PROVINCIAREN
CONDAIRA EDO HISTORIA**

GENETAN JARRITZEN DIRADEN ANGIRO
BERAREN ASIERATIC ORAIN-ARTE DAGOZQUION
BARRI GOGOAN ARRIAC.

EGUIN ETA ZUKENDU CEBANA

D. Juan Ignacio de Uztueta

Guipuzcoaco dantza anciñacoen condaira-ren
eguillea, eta bertaco soñu zarrac bildu
ta argitaratu cituenac.



DONOSTIA

IGNACIO RAMON BAROJA-ren moldizteguian
1847 garren urtean eguiña.

Azkue eta bai Urquijo, Real Academia Española-ko hizkeltzain oso izendatuak izan ziren euskeraren izenean.

1920ean hasten da Euskaltzaindia bere aldizkari *Euskera* argitaratzen. Hau du bere agerkari ofiziala. Bertan ematen dira Euskaltzaindiaren agiri, erabaki, txosten edo euskaltzainen nahiz kanpoko lanak.

Euskaltzaindiaren diru etorpideak lau Diputazioak ziren, beste zenbait Elkartarik hel zitezkeen emaitz edo norbere lanen etekinak kontatzeke.⁽⁶⁾ Eta zinez, bere lehen aro hartan batzarrera etortzearen saria izaten zuten euskaltzainen inoiz bekak ere eman zitzaizkion zenbait laguna estudio hautatu batzuk egiteko, Schuchardt hizkuntzalariari ere sari bat eman zitzaion bere lanengatik, etab. Kanpionek eskatuz, eta bere gain hartzen zuen lan eskergarengatik, Euskaltzaindiak eskupeko berezia pasatzen zion Azkueri.⁽⁷⁾ Baita euskal idazle eta aldizkariek ere zenbait aldiz diru laguntzaren bat har zezaketen Euskaltzaindiarengandik, baina hark erabakitako idazkera legea onartzekotan.⁽⁸⁾

Jakina, urteak joan eta urteak etorri, aitzingibelak ez dira lehengoak eta Euskaltzaindiaren egituran ere aldakuntzak gertatu dira.

Lehen arautegi eta Barne Erregelak 1920ean argitaratu ziren. Gero, berriz, eta 1954.ean Arautegi eta Barne Erregela bat egiten dira. Aldakuntzarik handiena 1954.eko Arautegian hau izan zen: euskaltzain osoak hamazortziraino, guttinaz,

(6) *Euskaltzaindiaren Sortarauak*, 1920, 7. orriald.

(7) *Euskera*, VI (1925), 2-3, 62. orriald.

(8) *Euskera*, III (1922), 4. z, 34. orriald.

HERRI LAGUNAK



Los Amigos del País

ESTATUTOS
APROBADOS POR S.M.
PARA GOBIERNO
DE LA REAL SOCIEDAD
BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS.



CON LICENCIA.
EN VITORIA: Por Tomás de Robles, Impresor de la
misma Sociedad.

ENSAYO
DE LA
SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS
AMIGOS DEL PAÍS.
AÑO 1766.
DEDICADO
AL REY N. SEÑOR.

Con la Licencia necesaria.
EN VITORIA, por Tomás de
Robles, Año 1766.

jasotzea. Eta arrazoia: garai hartan gertatzen zen euskaltzain batzuek, desterruan bizi zirelako ez zutela batzarrera etortzerik. Orduan, batzarrera zetozena gutiegi izanik, etortzerik ez zutenen ordezkoak izendatu ziren, baina kanpoan zeudenak inoiz etorriko balira ordezkoak ere karguan segituko zutela esanez.⁽⁹⁾

Eta azkenik, 1972an Arautegi berria egin da. Azken Arautegian hogeい eta lautan finkatzen da euskaltzain osoen kontua. Gaur-egun, hogeい eta lau hoiatarik, zazpi euskaldun frantse-sak dira.⁽¹⁰⁾

(9) *Estatutos y Reglamento*, 1954, 4. orriald.

(10) Esan dezagun, berri labur hauek akabatzean, Euskaltzaindiak bere sortzetik erabiltzen duela seinaletzat Genikako haritza, hitz hauekin: «Ekin eta Jarrai».



3

Euskaltzaindiaren lehen aroko lanak (1920-1937)

Euskaltzaindia lanean hasi zenean, gure hizkuntzaren beraen izena, hots, *Euskera* izena, finkatu zuen, hitz huni buruz aldaerak eta idazmolde desberdinak zeudenez eta daudenez geroztik.⁽¹⁾ Euskeraren Akademia bera izendatzeko, *Euskaltzaindi* hitza asmatu zen,⁽²⁾ eta euskeraz idaztean erabiliko den idazkera erabaki.⁽³⁾ Axolarik handieneko puntuak zen hau, zeren garai hartan usadio desberdinak zeuden.

Erabakitzetako zailakoa eta azkozaz ere larriagoa izan zen Euskaltzaindiari hasiberri hartan bertan azaldu zitzaion beste lana, hots, idatzizko zereginetarako euskera mueta beti bat eta berdina muntatzeko lana. Edozeinek daki euskera mintzatuak desberdintasun nabariak dituela, tokitik tokira, eta eskualde batzuk, besteekin harremanik izan ez dutelako, idazte molde desberdinak sortu direla. Oinatiko batzarrean Eleizalde jaunak aditzera eman zuen problema huni, euskeraren etorkizunerako duen garrantziagatik, lehen-bait-lehen soluzio bilatu behar zitzaiola.⁽⁴⁾

Euskaltzaindiaren Arautegian bertan jaso zen kezka hau: Elkargoaren helburuak izendatzean, hara, hitzez hitz, zer dioen Arautegiak: «6.a) ekingo du euskalgi oroen odolez

(1) *Euskera*, I (1920), 1 z., 62-63. orriald.

(2) *Euskera*, I (1920), 1 z., 63. orriald.

(3) *Euskera*, I (1920), 1 z., 64. orriald.

(4) ELEIZALDE, I.: «Métodología para la restauración del euzkera», *Primer Congreso de Estudios Vascos*, 428 eta ondoko orriald.

LOS PRIMITIVOS
HABITANTES DE ESPAÑA.

INVESTIGACIONES CON EL AYUDADO DE LA LENGUA VASCA.
POR

G. DE HUMBOLDT,

TRADUCIDAS

DE D. RAMON ORTEGA Y FRIAS.

MADRID,
LIBRERIA DE D. JOSE ANILLO,
CALLE DEL CARMEN, 2. (PROPIEDAD A SANTO DOMINGO).
1870.



LIBRERIA CATÓLICA
JOSE DE ANTUYA
CALLE DEL CARMEN, 2. (PROPIEDAD A SANTO DOMINGO).

17816

A.S. IGNACIOREN EGERCICIOAC
beren lu Alstean dira modu
onetan.

L Enengo Alsteo Meditacio jaquifiac
Novifimoac.
Biguren Altean Jesu Cristoren Encar-
ciotzaren, da Ama Virginaaren Bi-
citzaco Miserioac.
Iragarten ean, Alte Santuco Miserio,
ta Paulosc.
Langarrenean, nola Jelus gloriosoa er-
reinu zu Ama Virginalari, ta belse
alson agurru zan, da Eleiza Santa
ordendia, ta ceruza igo zan: da bere
amotioa Elipintu Santuarequin nola
eman egin.



Pag. 1
ILLAREN EGUNOROCO
MEDITACIO

LABURRAC.

LENENGO EGUNEAN.

I. SALVACIOAREN IMPORTANCIA.

N ERE SALVACIOA. DA
eguiteco bat, eta guzgia ne-
rea. Ni onetan pentatzent
expadet nigaric noic pen-
farucodua?

I. Eguiteco auñ nerca da, non da
di-

ONDO ILLTCEN
ICASTECO,
ETA ONDO ILLTCEN LAGUNTCECO
Egercioac.

ONDO ILL NAI DUTENAI,
ta ondo illten lagundu nai duten
Jaimearen Ministroai, Jesus-en
Companiak Aita Agustin
Cardaberaz-ec esquient
cen diztenac.

1787.



URTEAN.

BEARDAN BEZALA.
Talasun : Librugulle Don Francisco de la
Laua-ren Etxean,

azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketak erabiltzekoa».⁽⁵⁾

Arautegiaren agindu hau bete nahiz, Euskaltzaindiak eskatu zien Kampion eta Broussain-i txosten bat arazo honi buruz presta zezatela, eta hauek zintzoki konplitu zuten beren egitekoa: «Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera».⁽⁶⁾


Kampion eta Broussain-en txostenak argi eta garbi aitortzen du Euskaltzaindiari eskatu zaizkion lanetan hauxe dela larriena, eta beste aldetik luzamendutan ibili gabe soluzioa bilatu behar zaiona; proposatzen du, beraz, hortarako behar liratekeen batzordeak jar daitezela.

Gainera, Euskaltzaindiak gai huni buruz, hor-hemen Batzarrre agiriak munta, inuesta eta galdeketak antola, iritziak eska etab. egin zuen. 1922.ko *Euskera* aldizkarian, jasorik daude orduan agertu ziren txosten eta irietzarik asko. Bitartean, ordea, Ramón Menéndez Pidal eta Julio de Urquijo jaunek hauzi huntan parte hartzen dute, hizkera artifizial bat sortzeko arriskua dagoela salatuaz; eta itzal handiko jaun hoien esana ur hotza goitik behera botatzea bezala izan zen.⁽⁷⁾ Akademiak konprenditzen du gauzak ezin direla lasterregi egin. Behar bada euskerari buruzko estudioak ere ez zeuden artean aski aitzinatuak, lan huni ongi egingo delako esperantzaz heltzeko. Beldur izatekoa zen, gainera, lege gisa emandako soluzio batek ez zuela harrera onik izango,

(5) 1920. urteko Arautegi edo Sortaruak, 3. orriald.

(6) *Euskera*, III (1922), 1 z., 4-17. orriald. Liburuzka bezala ere azaldu zen.

(7) VILLASANTE, LUIS: «Don Julio de Urquijo y el problema de la Unificación del Euskera literario», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo*, V (1971).



euskaldun jendearen soziologi egoera ikusiz —ia dena baserri, nekazari eta hauzo giro batean bai zen. Hori gora behera bizirik iraungo du kezka hunek, zeren hizkuntzak dituen zinezko eta benetazko premietarik bat baita. Euskaltzainburu jaunak —Azkuek— bere aldetik «Gipuzkera Osotua» deitzen zuen bidea segituko du, hots: idatz euskera molde bat giputz euskalkian oinarritua, baina, beste euskalkietako txerto eta ekarriekin aberastua.⁽⁸⁾

Hitz berrien korapiloa ere hor zen. Garai hartan bazen hitz berriak asmatzeko grina, eta hoietako pilo dexentea zebilen bazterretan. Gauza bera izendatzeko batek era batera eta bestek bestetara asmatzen zuen, gainera. Hitz hoik gehienetan, hizkuntzan aspaldidanik sustraituak direnen ordain izateko sortzen ziren edo eta tresna berriak izendatzeko ere bai, hots: artean euskeraz izenik ez zuten gauza berriak izendatzeko. Zer nahi gisaz, nahaspila sortzen zen. Orduan idazle talde batek, eusko Ikaskuntza bitartekotzat harturik, eskea egin zion Euskaltzaindiari: beharrezko iruditzen zitzazkion hitz berriak asma edo bere autoritatez babes zitzala. Baino hauzi hau batzarrera eraman zenean, Urquijo eta Lacombe ezezkoaren alde jarri ziren: Akademiak ez zutela istilu horretan zer sarturik. Ez zela haren egitekoa, idazleena eta herriarena baizik.⁽⁹⁾

Morfología Vasca-ren hitzaurrean esaten du Azkuek Euskaltzaindia sortu zenetik betiko lelo berbera entzuten ari direla euskaltzainak: «Noiz eman behar diguzue euskal gramatikaren laburpen bat? «eta hau erantzuten du: «Fotoginek xoilki

(8) AZKUE: «Gipuzkera Osotua» *Euskera*, XV (1934).

(9) *Euskera*, XI (1930), 49. orriald.



dutela gauza ttipi batetik handia egiteko ahalmena. Gainera-ko guztiak alderantziz lan egin beharrean daudela, alegia: lehenbizikoz obra haundi-zabala egin eta hortik atera ahal izango dira laburpenak. Eta horrela batzarretan irakurtzeko gertatu zituen berak *Morfología Vasca* izenburuaz gero aldizkarian, eta bai liburu bezala ere atera ziren lanak.⁽¹⁰⁾ Obra hunek, Azkueren obra guztiekin bezala, irakurleari dokumentazio harrigarria eskeintzen dio. Eta ez da Azkuerena bakarrik, zeren batzarkideen oharrekin hobetua baitago.⁽¹¹⁾

Gero euskaltzainburuak beste lan handi bat proposatu zuen: «Erizkizundi Irukoitza delakoa.⁽¹²⁾ Herri hizkeran gertatzen diren fonetikazko eta beste sail batzueta zenbait lege zehazki jakiteko, galdeketa mordoa zekarren. Erantzunak eskualde guztietako euskaldunen ahotik jaso behar ziren. Galdeketa hunen emaitza ere *Euskeria* aldizkarian jasorik dago. Erantzun bat, ordea, gerla ondoko garaian agertu da.⁽¹³⁾

Euskaltzaindiak, aro huntan, eskuartean erabili baina burutu ez zuen beste lan bat, hunako hau izan zen: Erdal-Euskal Hiztegiaren gertuketa. Hiztegi hunek Azkuek 1905ean agertutakoaren segida edo bigarren partea izan behar zuen.

Gainarakoan, *Euskeria* aldizkarian, lehen aro huntan, gramatikazko dialektologiazko eta beste sail askotako lanak daude.

(10) *Euskeria*, IV-VI (1923-1925). *Euskeria* aldizkariaren lehen aroan badira, noski, lan gehiago eta aipatzea merezi lukentenak. Adibidez, Sebero Altuberen «Erderismos», «El Acento Vasco» eta «La Vida del Euskeria», Azkueren azterketa erronkariko euskerari buruz etab.

(11) *Morfología-k* baditu eraskin batzuk; bi Azkuerenak eta bat Altuberena. Ikus *Euskeria*, XII (1931), 87-206; XIV (1933), 197-223; XV (1934), 5-231.


(12) *Euskeria*, III (1922), 4 z. 7. orr.

(13) GAVEL, HENRI: «Reponses soul étes à un questionnaire linguistique *Euskeria*, 1960, 293-316

NIKOLAS ORMAETXEA 'ORIXE'



EUSKALDUNAK



AMABITARTE-TAR AUGUSTIN
SCHUCHARDT-SARIA 1929:

U/AURI
(IRAKURGAIA)

Berariaz aipatzekoak dira, Azkueren lanetaz aparte, Altubetar Seber jaunarenak, Jon Eguzkitza, Intza-r Damaso, N. Ormaetxea, Gerhard Bähr eta beste askorenak. Konprenitze-ko da *Euskera* aldizkari hantan Urquijo eta Lacomberen lanik ez egotea, zeren hoiek *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkari sonatuan idazten baitzuten.

Zientzi lanetaz kanpora, Euskaltzaindiak literaturazko sariak ere sortu zituen, hala nola «Eleizalde Saria» eta «Schuchardt Saria» (jaun hoik hil zirenean).⁽¹⁴⁾ Bere mandatariak bialtzen zituen Ikastetxe batzuetako euskal etsaminetara, herriko Corporazioen galderai erantzun, eta eskatzen zitzaizkion itzulpenak egin ohi zituen. Bizkaiko hauzo ikastoletan maisu izan nahi zuenari euskeraz jakitea puntu bat bezala hartzen zitzaion —eta zaio. Jakite hori, ordea, Euskaltzaindiaren ageri batekin frogatu behar zen.

Baita ere —eta gerla aurreko aroari gagozkiola— Euskaltzaindiak eskabideak egin zizkion —eta ez behin bakarrik— Instrucción Pública-ko Ministergoari euskerari eskoletan sarrera eman zekion.⁽¹⁵⁾

(14) *Euskera*, VI (1925), 2-3 z., 123. orr.; VIII (1925), 158. orr.

(15) *Euskera*, XIV (1933), 19 eta 146. orr. Aipatzekoak dire gainera, *Euskalegúnak* izenaz antolatutako bi Biltzarrik; bata Durangon (1921) eta bestea Donezteben (1923) eginak. Liburu banatan daude egun hoietako lanak: *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, Bilbao, 1922. *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak* Bermeo, 1926.

EUSQUERAREN

BERRI ONAC.

ETA ONDO ESCRIBITCECO,
ondo iracurteco, ta ondo itzegui-
teco Erreglaci

CURA JAUN,

TA ESCOLA MAISU CELOSOAI
Jesuf-en Compañaco Aita Agustin Car-
daberaz ee elqueñicen, ta dedicateen
dieztenac.

1761.



Urtean.

BEAR DAN BEZALA.

Huñean Lidruguelle ANTONIO CASTI-
LLA-ren echean.



4

Euskaltzaindia gerla ondoko aroan

Espaniako gerla zibila eta gero lehertu zen mundu guztiko gerlak ondorio larriak izan zituzten Euskaltzaindiarentzat. Euskaltzainak sakabanatu ziren. Zenbait urtez ez zen batzarrerik egin. Azkue jaunak, ordea, Euskaltzaindiaren etxean lan egiteari ez zion utzi.

1941. urtean, J. M. Areilza, J. B. Merino Urrutia eta F. Igar-tua jaunek, Bizkaiko Diputazioaren «Junta de Cultura» Elkargoaren batzarkide ziren aldetik, eskea egiten diote Azkueri Euskaltzaindia berriz ere abian jar dezan. Eta zinez orduan urrats batzuk ematen dira. Baino Azkue zaharturik eta bihotz hildurik zegoen. Azkueren azken urteetan Federico Krutwig jaunak, haren laguntzaile bezala eta haren baimen eta ordaingoaz, Euskal Herria kurritzen du euskaltzain zenduen ordezkoak bilatzen, etab. Berriz ere euskaltzain berrien sarrerak ospatzen eta batzarreak egiten dira. Euskaltzain oso bezala orduan hartuak dira F. Krutwig, J. Gorostia-ga, M. Lekuona, P. Lafitte, J. Seminario de Rojas, L. Villasante, R. Lafon, L. Dassance, etab. Gauza hauk 1950ean eta hurreneko urteetan gertatu ziren.

Aipatu beharrekoa da, baita ere, Alfonso Irigoien jaunak urte gaitz haietan egindako lana. Euskaltzaindiaren etxera zetozene arazoei berak kobru ematen zien. Gainera euskeraren aldeko jaialdiak antolatu, eta, bereziki, hil aginean zegoen bertsolaritzaren literatur mota suspertzen, lan handia egin zuen.

S. S. *Podocarpus*
Morgulata
Mongolica
Mongolicola
Mongoliana
Mongolitarsis
Pinnata
Mormoqua
Mormoniaca
Mormonalata
S. S. *Micromyrtus*

470
Moracanua
Moracandua
Moracandubas
Moracandubras
Moracanthura
Moracanthus
Moracatu
Moracatuva
Moracatua
Moracava
Moracavas
Moracatua
Morayua
Morayuassuna
Morayuta
Moriquiruba
Moriquiruba
Moriquilua
Moriquimua
Mosca
 470
Moscheta
Moschetas

Mor
forrestii
Morsetiana
Moresquae
Morstrutha

Motz
Motra
Motritte
Motrituba
Motribira
S. 8. *Motributanema*
Mot

*Mayo et al.
1972*

Stenocarpus
Stenocarpus
Stenocarpus
Stenocarpus
Stenocarpus
Stenocarpus

52o
Sternatita
Monda
Sternatita
Monda
Sternatita
Mondavina
Mondavina
Mondavina
Mondavina
Mondavina
Mondavina

*Substratum
Substrata
Substratas
Substratas
Substrata*

Uva
Sorbus
Malus
Crataegus
Amelanchier
Prunus
Amelanchier
Amelanchier
Amelanchier

Muscarija
Murraya
Bergenia
Muscina

Muscum
Musca
Muscaevia
Muscoverra
Muscicula
Muscicula
Muscicula

~~5.9.8 Muong~~

Kaartaja
Kaartau
Kaartaiva
Kaarttaan
Kaarttetaa

Kaani
Kaarsras
Kaaskotku
Kaaskotkia
Kaaskotku
Kaaskotku
Kab


Nabacija

Euskera, Euskaltzaindiaren aldizkaria ere berriro agertzen hasi zen. 1954eko urrian zenbaki bakarra agertu zen, lehen aroko (1920-1937) tomoetan diren lanen aurkibideekin. Eta 1956.etik bat ere etenik gabe agertu da aldizkaria. Bere bigarren aroan *Euskera* aldizkari hunek baditu atereak zenbait lan, bai edaduraz eta bai balio aldetik ere aipagarri direnak, hala nola, G. López de Guereñu-ren «Voces Alavesas», T. Etxebarriaren «Léxico Eibarrés», Etxahun bertsolariaren lanen edizio kritikoa (J. Haritschelhar jaunak prestatua), Azkueren Omenezko tomoa, J. Bta. Gamizen olerkiak, Viena-ko J. Mukarosky Hizkuntzalariaren «El Vascuence y el Bereber» lana etab.

Aurrezki Kutxa eta abarri berariaz eskaturiko diru laguntze-kin, eta euskal literatura bultzatzeagatik, Euskaltzaindiak urteoro elaberri, nahiz olerki, nahiz teatro, saiakera eta bertsoberri Sariak antolatu izan ditu.

Zenbait Biltzar agiri ere eratu izan ditu euskera euskeraren problemei buruz. Lehenbizikoa Arantzazun 1956.eko udan egin zen; eta hurreneko urteetan beste batzuk eratzen dira Bilbon (1958), Eibarren (1959), Donostian (1961), Arantzazun (1963), Loiolan (1964) eta Arantzazun (1968).

Bilboko Biltzarraren ondoren eta berorren emaitza bezala, Euskaltzaindiak 1959.an Agiri edo Adierazpen bat ematen du euskal hitzei buruz. Hau da adierazpen horren muina: Hizkuntzan erroztaturik diren hitzak, jatorriz edozein etorkitakoak izanagatik, euskal hitzak bezala hartu behar direla, eta beraz hoik erabiltzea zilegi eta bidezkoa dela. Beharrezko zirudien adierazpen horrek euskal literaturari Haundi zitzaison giro hertsia gainditzen laguntzeko. Izan ere



Ecos.
Oyarak.
Eduardo Chillida.

giro horren arabera, erderarik heldu den oro hizkuntzatik erauzi beharko litzateke eta kendutako hitzon ordez hitz berriak sortu.

Euskaltzaindiaren ardurapean edo bedere haren babes eta laguntzaz argitaratu da bi aldiz Pedro Axular-en *Gero*, euskal liburu klasikoa (1963). Bi edizio hoiatarik lehena 1954ean eta bigarrena 1964ean egin zen —azkeneko hau euskeraz eta erderaz.

Baita Euskal Alfabetatze Ikastaroak ere, Euskaltzaindiak bere ardurapean hartu ditu. Ikastaro hoik adinetara heldutako jendeari ematen zaizkie, hots, euskeraz hitz egiten bai, baina eskola egoki baten faltaz euskeraz irakurtzen eta idazten ez dakitenei.

Euskal irakasle titulua sortu eta ikastaro eta etsaminak ere antolatzen ditu titulu hori lortu nahi dutenen faboretan.

Behin baino gehiagotan Educación y Ciencia-ko Ministergoari eskeak egin dizkio euskera sar dedin.⁽¹⁾

1968an handikiro ospatzen da Euskaltzaindia sortu zeneko mende erdia. Iriburuetan batzarre agiriak egiten dira, hots, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioetan, eta Baionako Musée Basque delakoan. Hoietaz landara Arantzazun beste biltzar bat egin zen idaz euskera batuaren problema aztertzeko berariaz bildua, zeren gizaldi berrieik problema huni, beti gerotik gerora luza gabe, soluzio eman dakiola eskatzen baitute. Egun hartarik, bada, gida moduzko agiriak ematen ditu Euskaltzaindiak, bai ortografi sailean, bai hiztegikoan, deklinabide, aditz jokatzean eta abar, batasun helburu edo xedea kontutan hartuz.

(1) Ikus *Euskera* (1968), 267. orr.; 1971, 109. orr.

Bibliotheca collortina.
26^e - 19^s.

LES PROVERBES
BASQVES
RECVEILLIS PAR LE S
D'OIHENART.

PLVS LES POESIES
Basques du mesme Auteur.



Z.230:

47



INTERPRETATION
DES
PROVERBES
BASQVES.

Ce qui se trouvera en cette interpretation, écrit en lettre Italique, sont des adjonstemens faits au texte Basque, pour une plus ample explication d'iceluy.

1. Ay esté abbayé & mordu tout à la fois.
2. L'Amy vieux, & le compte recent, sont les meilleurs de tous.
3. Il faut esprouuer l'amy aux petites occasions, & l'employer aux grandes.
4. Fais des amis, nou pas lors que tu en as besoin,

Facsimil del refranero de Olhenart

Hortaz gainera, beren umeei euskal izena ipini nahi dieten gurasoei laguntzeko, *Euskal Izendegia* eratu du; baita ere onartu eta agertu ditu *Merkatalgo Izendegia* eta *Zortzi Urte Artekiko Ikastola Hiztegia*. «Euskal-Herriko Arkitektoen Kolegioak» eskaturik, etxegintza saileko hiztegia oso aitzinatua dauka. Eskuartean dauka Euskal Herriko herri eta herritarren izendegi ofiziala ere. Ikastola eta abarren eskeari men eginez, E.G.B.ko eskola liburuen itzulpenak hizkuntza aldeko orraztapena egiten du. Eta abar.

Alde orotarik geroago eta gehiago datozkion eske eta galderai erantzuteko, Ordezkaritzak zabaldu ditu Donostia, Gasteiz eta Iruinean, beti ere probintzia bakoitzeko Diputazioarekin ados.

Azterketa hoitan trebe den elkartea bati euskeraren egoera sozio-linguiștikoa aztertzeko ardura egotzi dio.

Azkueren Hiztegia gaurkotzea du, ordea, Euskaltzaindiak aspaldidanik darabilzkien kulturazko lanetan printzipalena eta kontuzkoena. Lan hau bere batzarkide eta Salamancako Unibertsitatean irakasle den Luis Mitxelena jaunari gomendioan emana dio. Euskaltzaindiak badu jaun hunen alde utzartea eskatzeko asmoa, lehen-bai-lehen burutzeko aukera izan dezan. Hiztegi hau berau izango da dudarik gabe, tresna baliotsua eta ezin utzizkoa gure hizkuntzaz arduratzen diren guztientzat.

Eta beste asmo zahar bat, oraikotz burutzerik ez dagoena: Euskeraren Atlas Lingüistikoa egitea.

Esan beharrik ez dago, euskeraren egoerak eskatzen dituen ardura eta zereginei erantzuteko, Euskaltzaindiak eskuarte

Daiquile bere forte. Y. Leinda eugorong
E. equin bede cause vorondatea. Y. Leind
Lussean. Y. Leindatene doqu eme.
emor Daiquile graue bere vorondate
tue Lussean. gagozane equitec. Graue
equitec debet leges. Y. Leindatene
beren escare. E. Cristo equijurige
ex greuse egorsan. equine. equy
Y. Leindatene da escare oneten
eimon Daiquile gospucue mante
mentos. eta asynre graue. Y. Leind
da bort gassona. E. pasatu equine
guse zornae, queue que. Zornae
datene deuquileg. Y. Leindatene
deuquile escare oneten. E. pasatu
quieta besari equine. E. pasatu
hi equine. pasatu. leges.
que. Y. Leindatene pasatu. Taungoza
queuse propotione. pasatu. que
E. dide bort gauia ad a' paratela
epadou paratela esterante. Taun
gozae. Math. C. 6.

Y. Leindatene sagasse escare. E. Yohi
equine Taunten tentauriam. Y. Leind
teten deuquile escare oneten. E. que
arimeo aseri oen pessuimisto.
tao gracie emar coique.
Standute. Leindatene Raspigassone. E.
ya libren gauia gatherie. Y. Leind

8
teten Tao escare oneten. E. libren gauia
arime, eta gospucue gach quicletati.
Y. Leindatene doqu Taungoza gauia. E. gauia
escare. E. bay Tause, escature conuentan
gauia, humilde, confianca eta vichgarriegas.
Y. Leindatene etan doe. E. gauia resenge
ave marie. E. Maria B. vistante. E. da,
sogo alcancetas. E. gauia Tassengorcoasi
etatu deuquile.

Y. Noz da bora Virginea. E. da virtudes bote
riza. Taungoza armen Alma Santa.

Y. due masi, edo. Salvea di nozunian i Noz
zagquo. Verstan. E. Virginea.

Y. Noz etan abam ave marie. E. Abiques
Gabrielle, Santa Isabel, eta Maria Anna San
Besa. Y. Leindatene obliguelo do galvirina gugai
ti. Taungoza erregutente. E. Abore dovo
te ien, eta bere gasitazun, humilde, eta
beste virtutes imitantes.

Doctrinaren irugasser parte, cimientan ex
pliquetan di nian amar mandamentu, bort
ellonau eta miseri cordiuw equijurales.
Standute. Andalda. Yohite. Eca hristu, eta
escate. Salsetas. Eca santi. E. Tauna bora
americana. E. Taungoza gauia justicia
Standute. Leindatene. Salseto mandamentu.
Gauia. Taungoza amictas oaxue q' been
janean. E. cultura obliquian gauia mandamen
tu onse. E. Taungoza oaxue amau, alo
sari, etatu. E. Standute.

murritzkin eta diru laguntza eskas eta meharregiez lan egin behar izan duela. Egia da Akademiaren sortzaile izan ziren Diputazioek beti lagundu diotela, baina Spainiako legeek geroztik ezagutu dituzten aldakuntzengatik, Euskaltzaindiak ere bere lege egoeraren orairatzea egin behar izan du. Eta hori da, hain zuen, eta zorionean, Gobernuak 1976ko otsailaren 26an emandako Dekretoaz lortu dena.

Hamalaur Duna.

Elise-zelhayetan anima handiak
Elgari elhaketan, dire paseintzen;
Leku adarreraan ohi dire giktzen
Etchapare lehena dutes Euskaldunak.

Gizon famatu hoyei martxoaren hilak
Bozkario handi bat diste ekhartzen,
Endian Mantzola delarik ogaitzen,
Kore eder, emana zezuari burrak.

Immortalitatean sarta zireneko,
Jose, pentsatzen dugu hamen, guti, nigarie
Estantegiak Behin eraz adituko;

Jaiakibeh beritu da tristerik elhunez,
Marrunaka dohakon. olari eranetan:
athuna berakate lut non da kausituko

Paris, 8 Avril 1884

Julien Vinson

Professor à l' Ecole National
de Langue et Dialecte



J. L. Davant, en su discurso de ingreso a la Real Academia. Mauleón, 1976.

J. L. Davant, Euskaltzain sarrera eguneko hitzaldian. Mauleón, 1976.



5

Bost euskaltzainburuak⁽¹⁾

1. **Resurrección María Azkue eta Aberasturi** jauna izan zen lehenbiziko euskaltzainburua. Kargu horretan iraun zuen 1919tik 1951era arte (hau da, hil zen arte).

Lekeitio (Bizkaian) jaio zen 1864. urteko abuztuaren 5ean. Segur da euskerak ez diola beste inori berari bezanbat zor.

Nautika estudioak Lekeitio eta Batxilleratoa Bilbon ikasi zituen. Teologia, berriz, Gasteizen (1885), Eskritura Saindia eta Deretxo Kanonikoa Salamancan (1888). Musika Bruselasen eta Koloniako Kontserbatorioan (1909). 1888an hasiz, euskal irakasle Bilboko Institutoan, 1897tik 1899ra bitartean *Euskalzale* aldizkaria agertu zuen.

Real Academia Española-n hizkeltzain oso.

Bere lanik gehienak, liburuaz kanpora *Euskera*-n eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkarietan eman zituen.

Huna hemen haren obrarik handienak: *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 2 tomo, Bilbon 1905-1906; *Cancionero Popular Vasco*, Barcelona, urterik gabe; *Morfología Vasca*, Bilbon, 1925; *Euskalerriaren Yakintza = Literatura Popular del País Vasco*, euskeraz eta erderaz, 4 tomo, Madrilen, 1935, 1942, 1945 eta 1947.

(1) Ikus *Euskera* 1968, 296 eta ondoko orrialdetan.



Ikaxtolak.

Aipatu diren obra hoiatarik pare bat ere nahikoa litzateke gizon baten lehia eta lan-gosea frogatzeko. Baino obra handi hoietaz gainera baditu bestelakoak ere: ipuin, elaberri, opera, antzerki-lan, iker-lan, saiakera etab. Lista osoa emateko asmorik gabe, huna titulu batzuk: *Euskal Izkindea*, *Gipuzkera Osotua*, *Txirristadak*, *Bein da betiko*, *Ardi Galdua*, *Sasi eskola*, *Vizcaytik Bizkaira*, *Ortzuri*, *Urlo*, *Eguzkia nora*, *Aitaren bildur*, *Katalintxo*, *Seaska utsa*, *Lamiak Euskalerrian*, etab.

Azkueren nortasuna ezagutu nahi duenak, hor du haren omenez aterako zenbakia: *Euskera, bigarrem aroko bigarren tomoa*, 1957. *Lan hauek datoaz bertan*: N. Oleaga eta A. Arrueren hitzaldiak haren bizițe eta lanei buruz; *Maidagan-ek* «Dedicatoria del homenaje»; *Ibargutxi-k* «Azkue Euskeralogó»; *Olaizola-k* «Azkue músico»; *Mañarikua-k* «Azkue sacerdote». Aipaturiko tomo hunetan Azkuek egin eta hartutako eskutitz sorta ere argitaratu zen.

Irakurleak jo dezake, baita ere, Luis Mitxelena, Julio Caro Baroja eta Antonio Tovar-ek egindako liburua: *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*: Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1966.

2. Azkue hil zenean, **Ignacio María Etxaide Lizasoain** jauna izan zen izendatua, eta hau ere hil arte egon zen karguan (1952-1962).

Etxaide jauna Donostian jaio zen 1864. urteko abenduaren batean eta Donostian hil 1962ko azaroan. Industri ingeniaria, Gipuzkoako telefono-sarearen zuzendari. «Julio de Urquijo» euskal Filologiazko Mintegiaren buru.



Anitz obraren egile, bai euskeraz eta bai erderaz, urrutizkinaren teknikaz eta euskerari buruz gehienak. Huna hemen printzipalenak: *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929); *Subfijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro* (1911); *Tratado de Sintaxis del idioma Euskaro* (1912); *El verbo vascongado* (1923); *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935); *Desarrollo de las conjugaciones Euskaras Perifrásicas y Sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).

Euskal Esnalea, Euskera eta Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País aldizkarietan lankide.

Haren bizitza eta lanetaz berri gehiago nahi dutenak jo beza *Egan* euskal aldizkari literaturazkoara 1962, 169-172 orriald.; eta *Euskera* aldizkarira, 1962, 350-353 orriald.

3. Jose María Lojendio Irure. Euskaltzainburu izan zen 1963-1965 urteetan. Lojendio jauna Donostian jaioa da 1910. urteko urriaren 10ean.

Batxilleratoa Donostian, Deretxozko Lizentziatura Valladoliden eta Doktorgoa Madril eta Parisen egina.

«Julio de Urquijo» euskal Filologiazko Mintegiaren batzarkide. Ttipien aldeko Hauzitegiaren buruzagi Gipuzkoan.

«Luistar Euskal Idazle Bazkuna»ren sortzaile eta lehenbiziko idazkaria izan zen 1930ean. Garai hartako zenbait agerkaritan —*Junior, Gure mutillak, Argia, El Pueblo Vasco* etab— euskeraz idazten zuen. Inoiz-orde hauk erabiliz: Bidasoro, Matia, Polloe ta Mazkelet.

Gerla ondoko aroan *Egan, Euskera eta Arantzazu-n* idatzi du.

Hunako lan hauk ditu: «Iturbide eta Aranburu-tar Agustin, Mexikoko lenengo bakalduna» (Euskal Esnalea); «Gipuzkoako Foriak» (Donostiako Irratian); «Mogel» (Julio de Urquijo Mintegain); «Kristau Ikasbidea eta Eleiz itzildiak» (Euskaltzaindia); «Euskeraren batasuna ta Mogel» (Euskaltzaindia); «Kardaberaz eta Mendiburu» (Euskaltzaindia); «Loramendi» (Euskal Olerki Eguna); «Lengua y Literatura vascas» (París).

4. Manuel Lekuona Etxebeguren. Euskaltzainburu (1966-1970 urteetan).

Oiartzunen (Gipuzkoan) jaioa, 1894eko martxoaren 9an. Ikasketak Gasteizko Apaizgaitegian. Irakasle han bertan 1917tik 1936era. Euskaltzain laguntzaile da Akademiaren sortzetik beretik (1919). 1950ean euskaltzain oso izendatua.

Euskal Herriko anitz agerkaritan, bai euskeraz eta bai erderaz, etnografi, histori, arte eta literaturari buruz.

Erderaz obra hauk ditu: *Métrica vasca* (1918); *La poesía popular vasca* (Eusko Ikaskuntzaren V. Biltzarrean, 1930); *Literatura oral euskérica* (1935); *Del Oyarzun antiguo* (1959); *Literatura oral vasca* (1964).

Euskeraz berriz: *Gabon kantak* (1933); *Iesu aurraren bizitza* (1948); *Gorozikatik Gurutziagara* (1952); *Zigor* (1963); *Bi antzerki eta itzaldi bat* (1965).

Liturgia euskerara itzuli dutenen gidaria.

Berak prestatua da *Gero* liburuaren 4. edizioa, 1954ean Euskaltzaindiaren ardurapean egina.

5. **Luis Villasante Kortabitarte.** Euskaltzainburu izendatua 1970ean.

Gernikan (Bizkaian) jaioa 1920. urteko martxoaren 22an. Frantziskotarra. Ikasketak Kantabriako frantziskotaar Pro-bintziako ikas etxeetan. Teologiazko Doktorgoa Comillasko Unibertsitatean. Arantzazuko Teologi Ikastetxean irakasle. Anitz artikulu eta lanen egile aldizkari eta agerkari askotan.

Obra hauen egile: *Historia de la Literatura Vasca* (1961); *Axular-en Gero euskeraz eta erderaz* (1964); *Jainkoa* (1962); *Jesukristo* (1969); *Hacia la lengua literaria común* (1970); *La declinación del vasco literario común* (1972); *Palabras vascas Compuestas y Derivadas* (1974); *Axular: Mendea, Gizona, Liburua* (1972); *Axular-en Hiztegia* (1973).







6

Miembros actuales de la Real Academia de la Lengua Vasca «Euskaltzaindia» Euskaltzaindiko Lagunen Izendegia (Oraingo Lagunkideak)

Académicos de número⁽¹⁾ - Euskaltzain osoak⁽²⁾

Antonio Arrúe	Federico Krutwig
José Miguel Barandiarán	Antonio M. ^a Labayen
Louis Dassance	Pierre Lafitte
Louis Davant	Pierre Larzábal
P. Xabier Diharce	Pierre Larre
Eusebio Erquiaga	Manuel Lecuona
Juan Gorostiaga	José M. ^a Lojendio
Jean Haritschelhar	Luis Michelena
P. Dámaso de Inza	Juan San Martín
P. Policarpo de Iraizoz	José M. ^a Satrústegui
Angel Irigaray	P. Luis Villasante
Alfonso Irigoyen	P. Antonio Zavala

Académicos de honor - Euskaltzain ohorezkoak

Odón Apraiz	Juan Bta. Merino Urrutia
Juliana Azpeitia	Robustiana Múgica
Karl Bouda	Norbert Tauer
Isaac López Mendizábal	Antonio Tovar
Gabriel Manterola	Madeleine Yaureguiberry

(1) Habida cuenta de que muchos señores académicos, según los años, han tenido varios rangos en la Academia, se advierte que en esta relación y también en la de finados, sólo se consigna el más alto.

(2) Euskaltzain askok, urteetan zehar, Euskaltzaindian maila bat baino gehiago izan dutela jakinik, Izendegi huntan eta zenduetakoan, mailarik gorena bakarrik jarri da.

Académicos correspondientes - Euskaltzain lagunzaileak

Jesús Acha
Mikel Achaga
M.^a Dolores Aguirre
Eugenio Agirreche
Gexan Alfaro
Jacques Allières
P. Francisco Altuna
José Luis Alvarez Emparanza
Xabier Amuriza
Agustín Anabitarte
Pierre Andiazábal
P. Martzel Andrinua
P. Lino Aquésolo
José María Aranalde
Javier Arámburu
José Antonio Arcocha
Jesús María Arenaza
Francisca Arregui
Begoña Arregui
Fernando Artola
José María Azpiroz
Miguel Angel Aztiz
José Azurmendi
P. Salvador Barandiarán
Iñaki Barriola
José Basterrechea
P. Isidoro Baztarrica
Alessandro Baussani
Juan José Beloqui
Iñaki Beobide
P. Imanol Berriatúa
Hno. Valentín Berriochoa (N. Alzola)
Juliana Berrojalbiz
Serafin Basauri
Pedro Berrondo
Antonio Berrueta
Milagros Bidegain
Antonio Bilbao

Jon Bilbao
P. Félix Bilbao
Pierre Bordaçarre «Etxahun»
Rodolfo Bozas Urrutia
Ramunxo Camblong
Joseph Camino
Julio Caro Baroja
Jacinto Carrasquedo Olarra
Jorge Cortés Izal
Jean Pierre Curutchet
Pierre Charriton
Pedro Díez de Ulzurrun, presbítero
Pedro Díez de Ulzurrun, médico
Jean Baptista Dirassar
Pierre Duny-Pétré
José María Echaburu
Jon Echaide
Nemesio Echániz
Carmelo Echenagusía
Juan Angel Echevarría
Peter Echeverría
P. Francisco Echeverría
Ignacio Eizmendi
Jesús Elósegui
Kepa Enbeita
Karmele Esnal
Bernardo Estornés Lasa
José Estornés Lasa
Eñaut Etchamendy
Jean Batiste Etcheberry
P. Etchehani
Jacques Etcheverry
Pierre Eyheramendy
Patrick Farell
Jacinto Fernández Setién
P. Victoriano Gandiaga
Justo Gárate
Marcelino Garde

Juan Garmendia «Zeleta»
Juan Garmendia Larrañaga
Salvador Garmendia
Ignacio Goicoechea
P. Juan Goicoechea
Manex Goyhenetche
Xabier Guereño
Paul Guilsou
Marcelin Heguiaphal
Jean Hiruart-Urrutty
Nils M. Holmer
Mariano Iceta
P. Joseba Inchausti
Roger Idiart
Arantza Idiazábal
Fermín Ijurco
José María Iriondo
José Angel Irigaray
Michel Itxaina
Enrique Knörr
P. Guillermo Larrañaga
Mikel Lasa
José Manuel Lasarte
Imanol Laspiur
Juan María Lecuona
P. Gabriel Lerchundi
Juan Antonio Letamendía
Xabier Lete
José Luis Lizundia
José Antonio Loidi
Gerardo López de Guereñu
Peli Martín Latorre
Xabier Mendiguren
P. Fernando Mendizábal
Marie Jeanne Minaberry
P. Justo Mocoroa
Telesforo Monzón
Luis María Múgica
P. Plácido Múgica

Jean Narbaitz
Manuel Olaizola «Uztapide»
Jesús Oleaga
P. Ignacio Omaechevarría
P. Santiago Onaindía
Juan Oñatibia
Josu Oregui
Dominique Peillen
Xabier Peña
Jaime Querejeta
Xabier Quintana
José Antonio Retolaza
Rudolf de Rijk
Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu
Ramón Saizarbitoria
Etienne Salaberry
Carlos Santamaría
Ibón Sarasola
Manuel de la Sota
Juan Thalamas Labandíbar
Francisco Tirapu
Juan María Torrealday
P. Patxi Uribarren
Miguel Javier Urmeneta
Martín Ugalde
Ignacio Urquijo
Thomas Uthurry
Pedro Yrizar
Patxi Zabaleta
Jokin Zaitegui
Gabriel Zapiaín
Mikel Zárate
Ambrosio Zatarain
Juan José Zearreta
Manuel Ziarsolo
Agustín Zubicaray
Aniceto Zugasti
José Miguel Zumalabe

**Miembros finados de la
Real Academia de la Lengua Vasca
«Euskaltzaindia»**

**Euskaltzaindiko Lagunen Izendegia
(Lagun Zenduak)**

Académicos de número - Euskaltzain osoak

Domingo Aguirre	Juan Carlos Guerra
Sebero Altube	Ramón Inzagaray
Resurrección M. ^a Azkue	Juan Irigoyen
Pierre Broussain	Georges Lacombe
Arturo Campión	René Lafón
Ignacio M. ^a Echaide	Martín Landerretche
Bonifacio Echegaray	Pierre Lhande
Carmelo Echegaray	Ramón de Olabide
Juan Bautista Eguzkitza	Nazario Oleaga
Jean Elissalde	Nicolás Ormaechea
Luis Elizalde	Juan Miguel Seminario de Rojas
Guillaume Eppherre	Julio de Urquijo
Eladio Esparza	Pablo Zamarripa

Académicos de honor - Euskaltzain ohorezkoak

Henri Gavel	Hugo Schuchardt
Juan Cruz Ibarguchi	C. C. Uhlenbeck
Ramón Menéndez Pidal	Julien Vinson
Patricio Orcaiztegui	

Académicos correspondientes - Euskaltzain laguntzaileak


José Aguerre
Toribio Alzaga
Vicente Amézaga
Teodoro Arburúa
Gabriel Aresti
Sauveur Arotzarena
Ricardo Arregui
Manuel Arriandiaga
Miguel Arruza
P. Arrigarai
Cirilo Arzubiaga
José de Arteche
José Azcárate
José Azkue
Gerhard Bähr
Julián Barandiarán
Federico Balausteguigoitia
Evaristo Bustinza
Celestino de Caparroso
Americo Castro
M.^a Paz Ciganda
José Cincunegui
Comt. de Marien
Jean Bte. Constantin
Jean Chabagno
Jean Bte. Daranatz
Jean Bte. Darricarrere
Edwuard-Spencer Dogson
José Antonio de Donostia
Pierre Dourisboure
Dominique Dufain
Pierre Duhour
Eusebio de Echalar
José Echeandía
Toribio Echevarría
Cosme Elguézabal
J. B. Elissalde
Gregoire Eppherre

José María Errazti
Jean Etchepare
Blas Fagoaga
Aureliano Galaztza
Víctor Garitaonandía
Bernardo M.^a Garro
Angel Goenaga
Blas Goenaga
Juan Goicoechea Zabalo
Luis González de Echávarri
Julién Héguy
Andima Ibinagabeitia
Miguel Inchaurondo
José María Iribarren
Fermín Irigaray
S. Irigoyen
José Luis Jáuregui
Luis Jáuregui
J. Jud
Antoinette Lacarra
Pedro Lardizábal
Ignacio Larramendi
Ignacio Larrañaga
J. Larrasquet
Juan Bta. Larreta
Félix Larrieu
Albert León
León León
Lieschoain
Th. Linschmann
Gregorio Maidagán
Ignacio Mancisidor
Justin de Menditte
Salvador Michelena
Jon Mirande
Moix
Jules Moulier
Gregorio Múgica

P. Felipe de Murieta
S. Orabe
José Olaizola
Martín Oyarzabal
William Rollo
Frederic de St. Jayme
Jean Saint-Pierre
Claudio Sagarzazu
Vicente Saralegui
Jean Sañoihandy
F. Soloeta
Dominique Soubelet

André Tournier
Hermann Urtel
X. Urresti
Amancio Urriolabeitia
Jean Urruztoy
Pedro Miguel Urruzuno
Antonio Valverde
José Vallejo
Heinrich Winkler
Pedro Zabala
José Gonzalo Zulaica





Imprenta Industrial S. A. de Bilbao
terminó esta impresión
Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca
bajo el patrocinio del
Ministerio de Educación y Ciencia
en Noviembre de 1976







SERVICIO DE PUBLICACIONES DEL MINISTERIO DE
EDUCACION Y CIENCIA